

OLERKIAK

SANTA TERESAREN OLERKIAK
Luis Baraiazarrak itzuliak

8. ALMA, BUSCARTE HAS EN MÍ*

*Alma, buscarte has en Mí,
y a Mí buscarme has en ti.*

De tal suerte pudo amor,
alma, en mí te retratar,
que ningún sabio pintor
supiera con tal primor
tal imagen estampar.

Fuiste por amor criada
hermosa, bella, y así
en mis entrañas pintada,
si te perdieras, mi amada,
Alma, buscarte has en Mí.

Que yo sé que te hallarás
en mi pecho retratada,
y tan al vivo sacada,
que si te ves te holgarás,
viéndote tan bien pintada.

Y si acaso no supieres
dónde me hallarás a Mí,
no andes de aquí para allí,
sino, si hallarme quisieres,
a Mí buscarme has en ti.

Porque tú eres mi aposento,
eres mi casa y morada,
y así llamo en cualquier tiempo,
si hallo en tu pensamiento
estar la puerta cerrada.

8. JARDUN NIGAN ZEURE BILA[8]

*Jardun Nigan zeure bila
eta zeugan nire bila.*

Maitasunak zu hain ongi
Nigan, oi arima, irarri,
artista jakintsuenak
egin ahal duena baino
hobeki egiteraino.

Maitasunez izan zinen
eder, apain kreatua,
nire erraitan zertua;
galtzen bazara, maitea,
Nigan jardun zeure bila.

Badakit nik aurkituko
zarela ene bularrean
biziki irudikatua;
hartaz duzu gozatuko
ikusiz taxu ederrean.

Eta zuk ez bazeneki
Ni zein tokitan nagoen,
ez hara-honaka ibili,
ez baita aurkitzea zaila:
Zeugan jardun nire bila.

Zu zara nire egoitza,
nire etxe, bizitokia;
horrela noiznahi deitzen dut,
zure pentsamendu-atea
itxirik aurkitzen badut.

Fuera de ti no hay buscarme,
 porque para hallarme a Mí,
 bastará sólo llamarme,
 que a ti iré sin tardarme
y a Mí buscarme has en ti.

9. NADA TE TURBE

Nada te turbe,
 nada te espante,
 todo se pasa,
 Dios no se muda,
 la paciencia
 todo lo alcanza.
 Quien a Dios tiene
 nada le falta.
 Sólo Dios basta.

10. HACIA LA PATRIA

*Caminemos para el cielo,
 monjas del Carmelo.*

Vamos muy mortificadas,
 humildes y despreciadas,
 dejando el consuelo,
monjas del Carmelo.

Al voto de la obediencia
 vamos, no haya resistencia,
 que es nuestro blanco y consuelo,
monjas del Carmelo.

Zutaz at ez Ni bilatu,
aski baita Ni aurkitzeko
Niri oihu egitea;
hor nauzu Ni berehala;
zeugan jardun nire bila.

9. EZ ASALDATU[9]

Ez asaldatu,
ez ikaratu,
dena igarotzen,
Jainkoa ez da aldatzen;
pazientziak
dena du lortzen.
Jainkoa duenak
ez du ezer falta,
Bera aski baita.

10. ZERURANTZ[10]

*Goazen, bai, zerurantz,
Karmeloko mojak.*

Txit hilduratuak goaz,
apal, mespretxu gogoaz,
utziz geure pozak,
Karmeloko mojak.

Obedientzi botoari
ez eragozpenik jarri,
hartu jomugatzat,
Karmeloko mojak.

La pobreza es el camino,
 el mismo por donde vino
 nuestro Emperador del cielo,
monjas del Carmelo.

No deja de nos amar
 nuestro Dios y nos llamar,
 sigámosle sin recelo,
monjas del Carmelo.

En amor se está abrasando
 aquel que nació temblando,
 envuelto en humano velo,
monjas del Carmelo.

Vámonos a enriquecer,
 a donde nunca ha de haber
 pobreza ni desconsuelo,
monjas del Carmelo.

Al Padre Elías siguiendo
 nos vamos contradiciendo
 con su fortaleza y celo,
monjas del Carmelo.

Nuestro querer renunciado,
 procuremos el doblado
 espíritu de Eliseo,
monjas del Carmelo.

11. PASTORES QUE VELÁIS

*¡Ah, pastores que veláis,
 por guardar vuestro rebaño,
 mirad que os nace un Cordero,
 Hijo de Dios Soberano!*

Pobretasuna besterik
ez du Erregeak zerutik
honako bidetzat,
Karmeloko mojak.

Gure Jauna gu maitatzen
dabil, guri deitzen;
har dezagun aintzat,
Karmeloko mojak.

Maitasunez kiskaltzen da
dardaraka sortu zena
gizakiz jantzia,
Karmeloko mojak.

Goazen, ba, aberastera,
pobretasunik ez nekerik
inoiz ez denera,
Karmeloko mojak.

Eliasi jarraitzean,
haren gar nahiz indarrean
hor kontraesanak,
Karmeloko mojak.

Geure gogoa ukaturik,
lor dezagun bikoizturik
Eliseoren espiritua,
Karmeloko mojak.

11. ERNAI ZAUDETEN ARTZAINAK [11]

*Ai, ernai zaudeten artzainak,
artaldea zaintzen iaio,
Bildots bat, Jainko Gorenaren
Semea zaizue jaio.*

Viene pobre y despreciado,
 comenzadle ya a guardar,
 que el lobo os le ha de llevar,
 sin que le hayamos gozado.
 —Gil, dame acá aquel cayado
 que no me saldrá de mano,
 no nos lleven al Cordero:
¿no ves que es Dios Soberano?

—¡Sonzas!, que estoy aturdido
 de gozo y de penas junto.
 —¿Si es Dios el que hoy ha nacido,
 cómo puede ser difunto?
 —¡Oh, que es hombre también junto!
 La vida estará en su mano;
 mirad, que es este el Cordero,
Hijo de Dios Soberano.

—No sé para qué le piden,
 pues le dan después tal guerra.
 —Mía fe, Gil, mejor será
 que se nos tome a su tierra.
 —Si el pecado nos destierra,
 y está el bien todo en su mano,
 ya que ha venido, padezca
este Dios tan Soberano.

—Poco te duele su pena;
 ¡oh, cómo es cierto del hombre,
 cuando nos viene provecho,
 el mal ajeno se esconde!
 —¿No ves que gana renombre
 de pastor de gran rebaño?
 —Con todo, es cosa muy fuerte
que muera Dios Soberano.

Txiro, beheratua dator;
hasi zaintzen dagoeneko,
otsokok eramango baitu
Hartaz gozatu orduko.
– Gil, ekardazu makila hura;
ez dut ez utziko horrela,
aurrean Bildotsa harrapatzen:
ez abaztu Gorena dela!

– Ene bada! Nahasirik nago:
batera poz eta min pila.
–jaio dena Jainkoa bada,
nola izan daiteke hila?
– Oi, gizona baita batera!
bizia bere baitan da;
gogoratu Bildots hau dela
Goi-goikoaren Semea.

– Nola daude haren zain orain,
kontra gero jende pila?
– Nik uste dut, Gil, hobe dela
etxera itzul dadila.
– Bekatuak erbesteratzen
bagaitu ta on guztia
berak badu, sufri dezala
gure Jainko hain handiak.

– Haren minak ez zaitu mintzen;
izan ere, hemen bakoitzak,
bere onerako, ahazten ditu
besteen min eta gaitzak!
– Ez al du irabazten artalde
handiko artzain-izena?
– Hala ere, oso latza da
biltzea Jainko Gorena.

25 AL VELO DE LA HERMANA ISABEL DE LOS ANGELES

*Hermana, porque veléis,
os han dado hoy este velo,
y no os va menos que el cielo;
por eso, no os descuidéis.*

Aqueste velo gracioso
os dice que estéis en vela,
guardando la centinela,
hasta que venga el esposo,
que, como ladrón famoso,
vendrá cuando no penséis;
por eso, no os descuidéis.

No sabe nadie a cuál hora,
si en la vigilia primera,
o en la segunda o tercera,
todo cristiano lo ignora.
Pues velad, velad, hermana,
no os roben lo que tenéis;
por eso, no os descuidéis.

En vuestra mano encendida,
tened siempre una candela,
y estad con el velo en vela
las renas muy bien ceñidas.
No estéis siempre amodorrada,
catad que peligraréis;
por eso, no os descuidéis.

Tened olio en la aceitera,
de obras y merecer,
para poder proveer,

25. AHIZPA ISABEL AINGERUENAREN BELO HARTZEAN [22]

*Abizpa, ernai egoteko
belo hau ezarri zaizu;
zerua doakizu hor;
ernai egon behar duzu.*

Belo politak diotsu
egoteko beti ernai,
senarra etorri arte
guardia jarririk zai-zai,
lapur ospetsu bezala
uste gabe etorriko da;
ernai egon behar duzu.

Ez daki inork zer ordutan,
lehenengo edo bigarren
edo hirugarreneko
orduan ote datorren.
Zain egon, zain egon, ahizpa,
ostu gabe zeuk duzuna;
ernai egon behar duzu.

Zuk zeure eskuan duzu
argi bat beti pizturik,
eta erne egon beloaz,
gerria ongi babesturik.
Ez egon, ba, erdi lotan,
arriskuaz kontu izan;
ernai egon behar duzu.

Izan nahiko olio ontzian,
meritu eta egintzekin,
kriseilua hornitzeko,

la lámpara, que no se muera.
Porque quedaréis de fuera,
si entonces no lo tenéis;
por eso, no os descuidéis.

Nadie os le dará prestado;
y si lo vais a comprar,
podríaseos tardar,
y el Esposo haber entrado.
Y desde una vez cerrado,
no hay entrar aunque llaméis;
por eso, no os descuidéis.

Tened continuo cuidado
de cumplir con alma fuerte,
hasta el día de la muerte,
lo que habéis hoy profesado.
Porque habiendo así velado,
con el Esposo entraréis;
por eso, no os descuidéis.

inoiz iraungi ez dadin;
kanpo izango baitzara
orduak ez badaukazu;
ernai egon behar duzu.

Ez dizu inork aurreratuko;
berandu egin daiteke
erostera joanez gero,
eta senarra letorke.
Behin atea ixten denean,
deitzea alferrik zaizu;
ernai egon behar duzu.

Kontu izan uneoro,
izan bihotz kementsua
hil arte bete dezazun
profesan gaur agindua.
Horrela, Senarrarekin
beloz sartuko zara zu;
ernai egon behar duzu.